

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZARAUZKO UDALA

*La Salle ikastetxea handitzeko xehetasun azterketa. Behin betiko onespena.*

2017ko apirilaren 24an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak honakoa erabaki zuen:

2017ko otsailaren 20an egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak hasierako onespena eman zion la salle ikastetxea handitzeko xehetasun azterketari; La Salle Ikastetxeko Guraso Elkarteak abiarazi zuen espediente hori.

Espedientea jendaurrean jarri zen. Ez zen alegaziorik aurkeztu.

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak informatu du obrak gauzatzeko aurkeztu duten obra eta jarduera proiektua bideragarria dela.

Espedientea ikusita, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

*Lehenengoa.* Behin betiko onespena ematea La Salle ikastetxea handitzeko xehetasun azterketari; La Salle Ikastetxeko Guraso Elkarteak abiarazi zuen espediente hori.

Onartutako dokumentua da 2017ko urtarrilekoa, Marina Lertxundi arkitektoak sinatutakoa.

*Bigarrena.* Onartutako dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiko hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea.

Horren ondoren, behin betiko akordioaren testu osoa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da. Halaber, behin betiko onespeneko akordioa lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian jakitera emango da.

Hala jakinarazten da, orok jakin dezan eta ondorio egokiak izan ditzan. Erabaki honek administrazio bidea amaitzen du. Nahi duenak berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Tokiko Gobernu Batzarrari, hilabeteko epean, edo zuzenean aurkeztu bi hilabeteko epean Bilbon egoitza duen Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Salan.

Aipatutako epeak iragarki hau argitara ematen denetik edo, beranduago egiten bada, interesdunak jakinarazpena jaso eta biharamunean hasiko dira.

Zarautz, 2017ko maiatzaren 10a.—Alkatea. (3391)

AYUNTAMIENTO DE ZARAUTZ

*Estudio de detalle para ampliar el colegio La Salle. Aprobación definitiva.*

La Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento, en sesión celebrada el día 24 de abril de 2017, adoptó el siguiente acuerdo:

La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 20 de febrero de 2017, aprobó inicialmente el estudio de detalle para ampliar el colegio La Salle, promovido por la asociación La Salle Ikastetxeko Guraso Elkarteak.

El expediente fue expuesto a información pública. No se presentaron alegaciones.

El Departamento de Urbanismo y Medio Ambiente ha informado la viabilidad técnica del proyecto de obras y actividad presentado para la ejecución de las obras.

A la vista del expediente, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

ACUERDA

*Primero.* Aprobar definitivamente el estudio de detalle para ampliar el Colegio La Salle, promovido por la asociación La Salle Ikastetxeko Guraso Elkarteak.

El documento aprobado es el suscrito por la arquitecta Marina Lertxundi (documento de enero de 2017).

*Segundo.* Remitir el documento aprobado al registro administrativo de planeamiento urbanístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Posteriormente, el contenido íntegro del acuerdo de aprobación definitiva se publicará en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa. Igualmente el acuerdo se dará a conocer en el diario de mayor difusión del territorio histórico.

Lo que se publica para general conocimiento y efectos, con indicación de que contra la presente resolución, que pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso de reposición ante la Junta de Gobierno Local, en el plazo de un mes, o impugnarlo directamente, en el plazo de dos meses, ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco con sede en Bilbao.

Los plazos señalados se computarán a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio o, de ser posterior, al de la notificación individualizada a los interesados.

Zarautz, a 10 de mayo de 2017.—El alcalde. (3391)